

JESUS'EN BIOTZAREN
JAURESKUNDEA
(ENTRONIZAMIENTO)



Nere atsegiñak giza-semiakin egotian ditudaz.

(Prov. 8, 31.)

V
6889



AMA BIRGIÑAREN AGERTZIAK ETA
LURDESKO GERTAERAK, PESETA BAT.



AITA AGUSTIN CARDABERAZ, JAIN-
KOAREN SERBITZARI ANDIAREN
BERRI LABURRAC, 0,35. P.



H-8614

R-36264

ATV

18.889

JESUS'EN BIOTZAREN

JAURESKUNDEA

(ENTRONIZAMIENTO)

A. KANDIDO BASABE'K (S. J.)

EGIÑA

(Bear dan legez)



(Bakoitza 15 zentimoan)

DURANGO'N


Florentino Elosu'ren Etse Argitaldari'an

— 1914 —



(ARGITALDARIARENA DA)

(3.000)



JESUS'EN BIOTZAREN JAURESKUNDEA

Ez da gauza berria.—Batek baño geyagok entzun nai irakurri izen au, ta egingo dute beregan: ¿orain ere gauza berria? ¿Ez al-daukagu naikua lengo oneraskera edo debozio-moduekin?

Jakin bezate onek, Jesus'en Biotzaren Jaureskundera ez dala gauza berria, gauza zar berriztua baizik. Jesus'en Biotzak eskiñi zion Zorioneko Margarita Maria Alakoke'ri: «Nik onetsiko (bedeinkatuko) ditut, nere Biotzaren irudia agirian ipiñi, ta aintzat artzen dutenen echeak.»

Ordutik óna ezin esan-aña zabaldu da, ez dakit nun Euskal'errian baño geyago, Jesus'en Biotzak eche-aurrean nai atean ipinteko oitura. Eta aingeruak, Egipto'tarren seme-nagosiak il biar zituanean, Judea'rrenik beren artean il ez zeaten, agindu zien lez bildots-odolaz ate-buruak igorzteko: baita gaurko egu-

nean ere bildots aretaz iruditu zan Jesus' en Biotzaren irudia echeren baten ezartea, eche ori Jesus'en echetzat aitortzea da.

Ona emen zergatik dan Jesus'en Biotza'ren ain gogozkoa oitura eder ori. Gizaldi onen azipenan ipiñi zanean, diabru-semeak atera zuten zarata, amurru ta gora-goreak ere, argiro au erakusten digu.

JAURESKUNDEAREN IZAPENA

Eche-atean nai eche-aurreko orman Jesus'en Biotza'ren irudia erakutsiaz, aitortzen da, esan degunez, eche ori Jesus'ena dala. Baña ez zayo orretaz bakarrik, eche-barruan tokirik ematen; ez da sendiko (fameliako) bat egiten.

Eta ara nun otutzen zayon Jesus eta Maria'ren Biotz Santuen Anaidiko A. Mateo Crawley-Boerey'ri, Paray-le-Monial'en, Z. Margarita Maria Alakoke bizi izan zan errian, Jesus'en Biotza jaures-tea, au da, echeko atetik barrura sartu, ta sendiko (fameliako) Jaun, Buru ta Errege egitea.

Itundurik Vives, Kardenal zanarekin, eta Merry del Val'ekin, eta beren bitartez Aita Santu Pio amargarrenarekin, guziok onetsi zuten.

Lenengoz jaureskunde au egin zuana, Andera Juana Ross, «Valparaiso'ko Santua» deitzen zayona izan zan, 1908 g. Chile'ko sendi askok jarraitu zuten; eta andik beko-ameriketara, gero goikora (Estados Unidos) ta beste lurreko toki askotara zabaldu izan da. Gotzain (obispo) gichi izango dira onetsi, ta parkapen askoz aberasteke utzi dutenak.

Gure artean ere zabaldu da; ta, onakoetan oi dana, ez gera izan makalenak gogoz artu, ta zintso aurrera eramaten.

Baña Jesus'en Biotza'ganako zaletasun ain sutsua daukaten Euskaldun-artean, eche bat geratu ez dedin jaureskunde eder, gozatsu, onuraskor au egin gabe-korik, euskeraz ipiñi nai izan degu, laburrean, zer dan eta nola egin bear dan.

JAURESKUNDEAREN IZAKERA

Oneraskun au Jesus'en Biotza echeko Buru ta Jauntzat aitortzean dago. Onerarako ipinten da bere irudia echeko tokirik agiri ta ederrenean, jarlekuan (tronuan), echeko guziak ainbat sarrien ikusi ta osterantzekoak ere ezagutu dezaten, eche a Jesus'en Biotzari emanda dagola; ta Erregetzat, beren maitetasunezko Erregetzat, echeko guziak, eta

beti, ta alde guzietan, eta beste gauza guziak baño geyago maite nai duten Erregetzat, ezagutu ta aitortzen dutela.

Iru gauza dira, ba, bearrekoak: Jesus'en Biotzaren irudia echeko tokirik ederrenean Errege-antzera ipiñi; aitortu zor diogun menpetasuna, ta bere aurrean, bere maitetasunaren gerizpean, etengabe bizi.

JAURESKUNDEAREN EGOKITASUNA

Jaureskunde au beti legoke ongi; baña iñoizko ongien gaur dan egunean dator. ¿Ez dakuskiguz edonun gizon galdu, deabruz beterikoak, Jesu-Kristo, gure Jaun andi, zeru-lurren Jabe ta erregea, gure asabak jaso zizkioten jarlekuetatik kendu ta baztertu nairik? Kendu dute legeetatik, oituretatik, paperetatik, kaleetatik, echeetatik, izenetatik: geure biotzetatik beretatik ere, albalukete, aterako lezagukete. ¡Orra nora jo degun gure asaba ain Jesus-zaleen ondorengook!

Arek ez legerik ateratzen zuten, ez paperik beltzitu, ez dirurik orketu (moldeau), ez echerik jaso, ez ontzirik egin, ez solorik edeki, Jesus'en izen, edo ezau-pide, kurutza, ezarriaz, gauza bakoitzar-

en jabetasuna emateke: ondorengoak, berriz, Jesus'en lekuan, bakoitzaren, edo emazte nai umeen izenak ipintzen dituzte, eta eskerrak gizon gaiztoenak ezarten ez dituztenean. Geyenak esaten dute egitez, gaurko ziñesgabekoen buruak, bere jauregia edekiteko Jesus'en irudia jaurti nai zuanean, zioana: «kendu ortik, ni geratu bear naiz-da.»

¡Eta ori bakarrik balitz! Baña, ¿ez aldaude beste asko, euren buruak katoliko, ta besteak baño obetzat euki arren, Jesus'taz uriko gauzetan artu-emanik nai ez dutenak; legeetatik, oituretatik, agiriko gauza guzietatik, naita edozein gaiztori leku eman, lapurra balitz bezela, besotik oratu ta ateratzen dutenak? ¿Ez daude beste asko, ¡eta zenbat! au charztat eman arren, lotsatuta, Jesus'en alde arpegirik ateratzen ez dutenak?

Geyago oraindik. Edonok daki zenbat alegin egiten duten gaiztoak, gure umei Jesus'en irakaskizunik ez emateko; Jesus ezagutu ezik, maite ere ez dutela egingo-ta.

¡Zein egokia, orduan, gaurko egunean, Jesus'en irudia artu, ta bakoitzak bere echean, tokirik onenean, Erregetzat ipintzea! ¡Zein ziñes-aitorkuntza ederra, zein erakutsi onuratsua, echera datoztenen-

tzat! ¡Zein egokia, umeak, irudi eder ori begien aurrean beti eukiaz, beren biotza maitetasunera lenengoz zabaltzen zayeneko, beraganako maitetasuna artu dezaten!

¡JAURESKUNDEA BENETAN EGIN!

¡Ez, gero, egikizun au umekeritzat artu! Ezta egin ere, besteak egiten dutela-ta. ¡Zintso, ganoraz, egin! Echekoak ain onak izan ez arren ere, ¡egin! Jesus'en Biotzari echea eman, eta bere menpean biziteko, egin. Ez dezala, gero, norbaitek esan: Eche ori Jesus'en Biotzari emanda dago; baña...

JAURESKUNTZA

Jaureskunde-eguna: Jaureskundea egiteko, artu bezake egun bat, ez eleizaz andiena, baña bai sendientzat (fameli-entzat) oroigarriena; adibidez: eskondu zirānekoa, aita nai amaren izeneko, seme-alabaren bat batiatu, edo lenengoz jaunartu zuaneko, ta orrela.

Jaurestokia: Echeko tokirik ederrenean ipiñi bear da. Esan bearrik ez dago, al-danik ederreña izan bear dala. zurezkoa ezin bada, miesa edo telazkoa; ta besterik eziñean paperezkoa, loraz nai

orritz orniduta. Ez dago ezin duanik; eta balego, besteak, batez ere neskatillak, egin dizayotela.

Irudia: Al-dala, zurezkoa, edo paper-zurezkoa. Oberik eziñian, paperezkoa. Onakoak, Deusto'n, Mensajero'an, (1) saltzen dira, peseta bian, bateterdian, baten, iru errialen, eta errial bian. Amarr-etik gora eskatu ezkerro, merkeago.

Daukanak ez daukanari emotea, Jesus'en Biotzak ondo zarituko duana da. Baña ez edozelan zabaldu; jaureskundera zerdan irakatsi, ta benetan egingo dutenari bakarrik eman.

JAURESKUNDERA

Irudia: Ipiñi bezake mai-ganiñan, nai beste toki egokian, onesteko (bedeinkatzeko) dagon Jesus'en Biotzaren irudia.

Batu bertan sendi (famelia) ta deituta dauden adizkide ta enparauak.

Onetsi irudia: Apaiz jaunak, erroketa ta estola zuriaz, esango du:

— Adjutorium nostrum in nómine Dómini.

— Qui fecit cœlum et terram.

— Dóminus vobiscum.

— Et cum spiritu tuo.

(1) Durango'n, Elosu'renean.

OREMUS: Omnipotens sempiternae Deus, qui Sanctorum tuorum imagines pingi non réprobas, ut quoties illas óculis córporis, intuemur, toties, eorum actus, et sanctitatem ad imitandum memoriae óculis meditemur, hanc, quæsumus Imaginem in honorem et memoriam Sacratissimi Cordis Unigeniti Filii tui Domini Nostri Jesu Christi adaptatam, bene † dicere et sanc † tificare digneris; et præsta ut quicumque coram illa Cor Sacratissimi Cordis Unigéniti Filii tui suppliciter cólere et honorare studúerit, illius méritis et obtentu, a te gratiam in præsentí, et æternam gloriam obtineat in futurum. Per Christum Dóminum nostrum. Amen.

(Ultimo aspergat aqua benedicta.)

Kredua: Guztiak argi esan bezakete, beren ziñesmena agertzeko.

Apaiz jaunak, nai aitak, esango dio Jesus'en Biotzari urrengo

AGURRA

Erdu, Jesus, gure Jaun maite-garriori, zure Ama gozoarekin, gure ezeukian eskintzen dizugun echechu onetara.

Gaurko egunean toki guzietatik ainbestek jaurtitzen bazaitue, guk beintzak pozik artzen zaitugu. Ona emen guziok Zu artzeko batuta.

Gure ondoan Zu bizitzea nai degu; gure atzera-aurreretan, gure poz-atsekabeetan, asko-gichi eukian, eta gora-bera guztietan, ⁽¹⁾ [gure umeen pozetan,] gure gizonen asmoetan [gure zarren oroitzetan,] Zu sartu zaitezala.

Gure ezta-baidetan argitu, Jauna; arriskueta iragarri, zirikaldietan eutsi; asmoetan zuzendu [batez ere geure bizibidea (estadua) artzeran;] baña, beste gauza guzien gañetik, zure maitetasunean gartu gaitezela.

Erakarri gaitzazu, Jauna, zugana, egunoro obeak ta kristau zintsua-goak eginda. Ez, Jauna, aldendu gugandik zure begiak gure bizi-tzan; eta eriotzan errukiz, arren, begiratu.

(1) Marra artekoak utzi, sendian (famelian): olakorik ez dagonean.

Zu Jaun eta gu menpeko gerala, Zu Agintari ta gu esaneko; zure bildur santuan, baña geyago oraindik zure maitetasunan, bizi gaitetzala, gure echean pekaturik aurkitu gabe.

Zeruan dauden gure senitarte-koak Zurekin batean begiratu begaitzate. Beretarikorik garbilekuan balego, atera ezazu.

Gure echekorik pekatuan eta zure adizkidetasun gaberik bizi bada: errukitu, Jauna, ta zугanatu.

Ona emen gure echekook; onetsi (bedeinkatu,) arren, Jesus onorrek, guziok [baña batez ere gure semealaba maite onek.] Baita emen aurkitzen diran adizkideok ere.

¡Jauna! Ez gera gu ezer, Zu gure bizitokichu onetan sartzeko. Baña euntariagana (zenturion) juan, Zakeo'nean sartu ta Maria Magdala'tarrenean bizi ziñean ezkerok, sartu ta bizi zaite emenche beti: arik-eta, bata besteen ostean, eche oneta-

tik zeruko zure echera igaro arte.

*Aita-gurea, Agur-Maria ta
Gloria, sendiko illen alde.*

JESUS'EN BIOTZA JARLEKOTZEA

Aitak, edo amak, edo ongien datorrenak, artu ta ipintzen du, gero, irudia, gerturiko jarlekuan.

Abestia (kantua): abestu ere egin liteke, al-dan tokian.

Aitak, edo amak, edo beste eche korren batek, nai apaiz jaunak esan lezake urrengo

ITZALDIA

Autu degu Jesus'en Biotza eche onetako Erregetzat: *Ecce Rex vester; orra zuen Erregea*. Judea'rrak bota zuten, baña guk artu degu.

Eche onetako Erregea Jesus'en Biotza da.

Erregea, baña maitetasunezko Erregea, ez bildurrezkoa. Egin dezagun, ba, beti eche onetan Jesus'en Biotzak nai ta agintzen duana.

Berak guk ziñestua nai duana,

ziñestu dezagun; gogoratu, berak guk gogoratzea nai duana; irakurri, berak guk irakurtzea nai duana; esan, berak guk esatea nai duana.

Maite dezagun berak maite duana; ta berak gorrotatzen duana, guk ere gorrotatu dezagun. Eginkunak, oiturak, arazoak, autuak adizkideak, jolasak, soñekoak, dana izan bear da eche onetan Jesu-Kristo gure Jaunaren legekoa.

Baña batez ere alegiñik andiena egin bear da, eche onetan pekatu aztunik ez egiteko. Maite Jesu-Kristo ta bere gauzak, batez ere bere ordeko Aita Santu, Obispo ta apaiz jaunak; eta gure bizitza guzian agertu kristau zintso ta benetako.

Ez dezagula Jesu-Kristo'k bere aurrean egindako okerrik arpegira jaurti; ba ez degu jarlekotu gure gaiztakeriak ikusteko, baizik gure beraganako apaltasun, esanekotasun eta maitetasuna artzeko.

Bera da gure Erregea; berak gu

autu gaitu, guk bera baño geyago.

¡Goratua izan bedi Jesus'en Biotza!

¡Betorkigu bere agintza!

¡Egin bedi bere guraria, zeruan bezela lurrean ere.

Salve.

BIOTZ-OTOITZAK (jakulatoriak)

¡Jesus'en Biotz guziz Santua!

¡Betorkigu zure erreñua (300 egun. park. bakoitz.)

¡Mariaren Biotz guztiz gozoa!
Zeruratu gaitzazu.

Onetsiko ditu apaiz jaunak, esanaz:

*Benedictio Dei Omnipotentis,
Patris et Filii et Spiritus Sancti † descendat super vos et maneat semper. Amen.*



GURE BORONDATEA

JAUNGOIKOARENAREKIÑ ELKARTZEA

ALFONSO MARIA LIGORIO'TAR SAN-
TUAC ITALIA'CO ITZCUNTZAN JARRI
ZUANETIC ERREDENTORISTA BENERA-
GARRI AITA TOMAS RAMOS'TARRAC
GAZTELANIAZ IPIÑIA, ETA APAIZ EUS-
KALDUN BATEC EUSKERARA ITZULIA

Saltzen da bakoṡa 0,50 p., amabi artzera
0,40 p., eun artzera 0,35 p.





SEGUR JAUNAC ESCRIBITU DUAN
COMUNIO SANTUA, EGUNEROCO
COMUNIOA ETA MIRARI
BATZUEC, 0,65 P.



BERE SALBAZIOA SEGURUTU NAI
DUAN MARIA-REN DEBOTOAREN
ASTEA, 0,25 P.





NIK ONETSIKO (BEDEINKATUKO)

DITUT, NERE BIOTZAREN

IRUDIA AGIRIAN IPIÑI, TA AINTZAT

ARTZEN DUTENEN ECHIAK



18